


# B. PEPETO HARIZTIA

## Galdakaoko Birika Berdea

Galdakaoko bihotzetik hamabost minutura baino ez, Pepeto Hariztia dago kokatuta, eta Belaustegi Hariztia ere esaten diote.

Bertan, autopistako zarataren orde, astoaren arrantzak eta haizeak herrestan daramatzan hostoak entzuten dira. Nondik gatozen gogorarazteko asmoz denbora gelditu egiten dela dirudien leku horietakoa da.



Harizti hau naturagune hurbil eta funtsezkoa da, babesleku berdea, alegia. Bertan, bideak oso-oso zuhaitz zaharren artean gurutzatzen dira, eta batzuek ehun urte baino gehiago dituzte. Herriko historiaren lekuko isilak dira, gainera.

Bere ibilbidea jende guztiarentzat egokia ez bada ere, ez da oso zaila. Beraz, familiak eta naturazaleak joaten dira bertara, tokian tokiko florarekin zein faunarekin harreman zuzenean egoteko eta Galdakaoko ikusmira zoragarriez gozatzeko.

Hariztitik hurbil-hurbil, Eguzkibegi ikastola dago kokatuta, eta ikasgela bizia edukitzeko pribilegioa dauka, hezkuntza fisikoa egiteko eta ingurunea zuzenez zuzenean ezagutzeko. Beraz, biologiako liburua ikasgelan uzten dute, basoan bertan zuzenean ikasteko.

Urtean zehar, hariztian bertan ere egiten dira herriko jarduera komunitarioak eta ospakizunak; esate baterako, bertako mendi-bideak bizitasunez eta alaitasunez betetzen dituzten Ibilaldia edo ikastolen jaiak. Topaketa horien ondorioz, Pepeto Hariztia leku irisgarria, hurbila eta ezaguna da belaunaldi guztientzat: mutilak, neskak, familiak eta aitona-amonak. Bertan, hain zuzen ere, natura eta erkidegoa doaz eskutik.

Pepeto Hariztiak ez du behar ez eserlekurik ez iturririk atsedena eskaintzeko: ezin ederragoa da, aratza delako eta orekari eusten diolako. Bertan azpiegiturarik ez dagoenez, garbi dago, eta naturala bezain jasangarria da, larregikerien eta arduragabekeriaren aztarnarik gabe.

**AKTIBATUZ: BIZIAREN, OSASUNAREN ETA EMAKUMEEN OROIMENAREN  
IBILBIDEAK.**

*ZAINKETA KOMUNITARIOEN IBILALDIA*

Berdegune honek airearen kalitatea eta bisitarien ongizate fisikoa hobetzen ditu. Bertako harizpeetatik ibiltzean, gure aldarteak hobera egiten du, eta kontzentrazioa suspertzen da.

Baso hau zaintzen dugunean, geure burua zaintzen dugu. Beraz, erantzukizun partekatua da bere orekari eustea, erabilera errespetagarria bultzatzea eta ingurumen-hezkuntza sustatzea.

Pepeto Hariztegia ez da paisaia bakarrik: umiltasun eta iraunkortasun ikasbidea da, eta gogorarazi egiten digu naturak bere onena ematen digula beti, errespetatzen dugunean.

**BAZENEKIEN...**

bertako haritz batzuek ehun urte baino gehiago dituztela? Galdakaoko historiaren lekuko isilak dira, herriak bidelagun dituen zaindari berdeak, alegia.